




Gizarte Segurantzako afiliazioa berriro igo da

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Martxoan, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 igo zen Euskadin, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, azken hilabeteetako milioi bat afiliazio baino gehiagoren kopurua finkatu da. Zehazki, martxoan 1.022.000 afiliazio baino gehiago erregistratu ziren, hilabete horretan serie historiko osoan jaso den erregistrorik gorena.

Langabezia erregistratua jaitsi zen urte arteko tasan

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Erregistratutako langabezia %2,8 murriztu zen aurreko urteko martxoaren aldean. Horrela, beheranzko joera gehiago bizkortu da, baina aurtengo Aste Santu berantiarraren eragina ikusteke dago. Emakumeen kolektiboan (%3,0) eta gizonenean (%2,7) izandako jaitsierek lagunduta, langabeen guztizko kopurua 108.314ra iritsi zen, 2008tik martxo batean jasotako txikiena baita.



Lan kontratuen kopurua %3,6 hazi zen

EAEn erregistratutako kontratuak
Urte bakoitzeko martxoa. Milakoak




Iturria: SEPE.

Martxoan kontratazioa %3,6 gehitu zen aurreko urteko hil beraren aldean. Hain zuzen ere, Euskadin 57.499 kontratu baino gehiago sinatu ziren, iazko martxoan baino 2.000 gehiago, Aste Santuak eragina izan badezake ere. Sinatutako kontratu mugagabeak 13.734 izan ziren, guztizkoaren %23,9.

IPIa %0,5 gehitu zen otsailean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea
Urte bakoitzeko otsaila



Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, otsailean EAEko industria produkzioa aurreko urteko hil berean baino %0,5 handiagoa izan zen. Igoera hori batez ere kontsumoko ondasunen hazkundeari zor zaio (%3,2), ekipamenduko ondasunek, tarteko ondasunek eta energiak murrizketak izan baitituzte iazko otsailarekin alderatuta.